

I. ERANSKINA
ENPRESA ESTRATEGIKOEN KAUDIMENARI SOSTENGUA EMATEKO
FUNTSAREN KARGURAKO ALDI BATERAKO LAGUNTZA PUBLIKOA
ESKATZEKO INPRIMAKIAREN EREDUA



titularra, **jauna/andrea, adinez nagusia,** **NAN zenbakiaren**
erakundearen (aurrerantzean, “Eskatzailea”) izenean eta
ordezkari gisa jarduten duena (egoitza soziala: **;**
harremanetarako telefonoa: **;** **harremanetarako helbide elektronikoa:**
; **IFZ:** **),** **gisa,** **dokumentuaren**
arabera[1].

[1] Adierazi ahalordea ematen duen legezko tresna, bai Notario aurrekoa zein estatutuen bidezko ordezkariaren arabera, eta atxiki dagokion dokumentuaren kopia eskaerari

HONEN BITARTEZ ADIERAZTEN DA:

1. **FCPJ enpresa estrategikoen kaudimenari sostengua emateko funtsaren (aurrerantzean, “Funtsa”)** araudi aplikagarria ezagutzen dela, eta eskaera honekin batera berariaz onartzen direla Funtsaren baldintzak, betekizunak eta funtzionamendua.
2. Eskatzaileak jarraian adierazitako dokumentazio atxikia aurkeztu duela, Funtsak proposatutako ereduaren arabera:
 - Eskatzailea onuradun izaera lortzeko debeku kasuen barne ez egotearen erantzukizunpeko adierazpena, 2020ko uztailaren 21eko Ministro Kontseiluaren Akordioaren II. Eranskineko 2. atalean xedatutakoaren arabera.
 - Bideragarritasun Plana.
 - Eskatzaileak Funtsaren enpresa onuradun izateko hautagarritasun baldintza jakinak betetzen dituela ziurtatzen duen erantzukizunpeko adierazpena.
 - 2019ko abenduaren 31ko datan zerga obligazioak eta gizarte segurantzarekiko obligazioak egunean izatearen ziurtagiriak, indarrean dauden xedapenen arabera.
 - Azken hamar urteetan jaso dituen laguntza publiko guztien erantzukizunpeko adierazpena, laguntza bakoitzaren zenbatekoa, kontzeptua eta dirulaguntza edo laguntza publikoa eman zuen organoa adierazita, edozein modalitatetan.
 - IFZ, eskatzailearen eratze eskritura eta uneko sozietate osaera eta gainerako organo sozialen osaera agertzen dituzten eskriturak. Bigarren mailako balore merkatu ofizial batean kotizatzen uten edo negoziatziorako onartuak dauden

sozietateen kasuan, partaidetza esanguratsuen xehetasunak eta organo sozialen uneko osaera agertzen duten eskrituren kopiak.

- Funtsaren kargurako aldi baterako laguntza publikoa eskatzeko erabakia barne duten enpresa eskatzailearen administrazio organoen akordioen ziurtagiria eta eskaera sinatu duten pertsonen ordezkaritza ahalmena egiaztatzen duten dokumentuak.
- Indarrean dauden Sozietatearen Estatutuak. Kontseiluaren Erregelamendua eta, kasuaren arabera, bazkide/akziodunen itun edo akordioak edo itun edo akordio parasozialak.
- Urteko Kontuak, Kudeaketa Txostena eta, kasuaren arabera, Finantzaz Besteko Informazioaren Egoera (sozietate taldeen kasuan, taldeko kontu kontsolidatuak eta eskatzailearen banakako kontuak), behar bezala prestatuak eta auditatuak, auditoretza eta egiaztatze txostenak barne, hurrenez hurren.

3. Dokumentu honen datan eskatzaileak ez duela inolako zerikusirik bere egonkortasun ekonomikoari edo eskatutako aldi baterako finantza laguntza publikoari eragin liezaiokeen eta eskaera honetan berariaz adierazi ez den prozedura judizial batekin, erreklamazio batekin edo administrazio espediente batekin.

4. Eskatzaileak onartzen duela Funtsak eska diezaiokeela aurkeztutako Bideragarritasun Planean edozein aldaketa, berregituraketa, hobekuntza edo eraldaketa egin dezan, aldi baterako laguntza publikorako berme eta/edo kaudimen gehiago eskuratzeko helburuarekin.

Aurreko guztiagatik, enpresa estrategikoen kaudimenari sostengua emateko funtsaren kargurako aldi baterako laguntza publikoa ESKATZEN du, eurokoa, jarraian adierazitako tresnen bitartez, Funtsaren araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera:

(e)n, 2021ko ren (e)(a)n

Sinadura